

JARDUERAK

Gure proiektua aurrera eramateko hainbat funtsezko jarduera egingo ditugu. Lehenik eta behin, euskal tradiziozko askotariko jolasen bilketak egingo ditugu. Horretarako, gure inguruan aditua den profesional bati galdetuko diogu. Baita, aditua ez den jendea baina beste garai batzuetako jolasei gerturatuko diguten pertsoneri ere galdetuko diegu, hau da, aiton-amonei, adibidez.

Jolas guztiak biltzerakoan, gure webgunea sortuko dugu, eta bertan, joko ezberdinen arabera multzoak egingo ditugu. Jolas tradizionalak izan arren, gure egunerokoan berrikuntzak egingo ditugu, jolas desberdinak gehituz.

Horrez gain, hainbat bilera eta hitzaldi antolatu beharko ditugu, guraso zein hezkuntzako langileei formakuntzak eskaintzeko. Gure webguneaz gain, liburu digital, zein fisikoa egingo dugu. Beraz, liburuak egiten dituzten enprekin hitz egin beharko dugu, liburu horiek egin eta argitaratu ahal izateko.

Aipatu beharreko jarduera garrantzitsuetako bat, behar bereziak dituzten haurrei bideratutako jolasak prestatzea da, bakoitzaren beharretara material ezberdinak egokituz.